

GIZARTE

UDAKO EUSKAL UNIBERTSITATEA EUSKAL KULTURAREN BIDEETAN

Sarrera

Udako Euskal Unibertsitateak bere lehen ekitaldia Donibane Lohitzunen egin zuen 1973'ko Irailean. Lehen saiakera izan zen euskal unibertsitari edo giro honen inguruan zebilen jendea biltzeko, ideiak eztabaidatzeko eta unibertsitarien arteko harremanak estutzen hasteko. Azken finean, guztien helburu nagusia, Unibertsitate EUSKALDUNA lortzea zen.

U.E.U. hasi zenetik 1981.era arte Euskaltzaindiaren babespean burutu zituen urteroko ekitaldi guztiak.

Garai hartako egoera politikoak horrela behartuta, lehenbiziko ekitaldiak Iparraldean egin ziren; lehenbiziko bi urteetan Donibane Lohitzunen eta 1975 eta 1976ean Ustaritzen. Gero, Hegoaldeko egoera politikoa lasaitzen hasi zenean, Udako Euskal Unibertsitatea Iruñearantz joan zen, bostgarren ekitalditik aurrera bertan burutuz.

Hasiera batean, U.E.U.k bere eginkizuna hitzaldiak emanez betetzen zuen gehienbat. Hau da, zenbait irakasle ospetsu deituak izaten ziren eta hauek hitzaldiak ematen zituzten; gero eztabaidatzen ziren, mintegi gisakoak eratuz. Baina denboran zehar sailen inguruan mugitzen ziren irakasleak eta ikasleak be-

raien autonomia handitzen hasten dira eta beraz sailkapena sendotu egiten da. Gaurregun 20 bat sail ditu eta bakoitza guztiz autonomoa da besteengandik, eta bere arduraduna edo sailburua du, urtean zehar lanak antolatzen joateko.

Halaz ere, Udako Euskal Unibertsitatea saiatzen da bere programak ahal den interdisziplinarioenak izan daitezen; era honetan, ikasleen heziketa askoz ere aberatsagoa eta oparagoa izaten bait da.

Jende askoren ustetan, U.E.U. Uztailearen azkenengo hamabostaldian egiten den zerbait da. Baina hau ez da guztiz egia. Normalki, sail bakoitzak badaki zer egingo duen hurrengo ikasturtean zehar. Udako ekitaldiak amaitu eta sakabanatu aurretik, sail bakoitzeko partaideak edo zama handiena daramatenak hurrengo urtean egingo dan lana eratzten hasteko lehen urratsa emanda ateratzen dira. Gero, urtean zehar, behar diren bilerak egiten dituzte, martxo alderako sailaren programa nahiko egokitua egonez. Programaren azken ikutuak maiatza amaitu baino lehenago egiten dira, eta beraz, uztaileako dena gertatua egoten da.

Honegatik, Udako Euskal Unibertsitatea ez da bakarrik Uztailean ematen diren 600 edo 650 klase-ordu, baizik urtean zehar klase horiek emateko egin den lana ere kontutan hartu behar da, hau bait da, azken finean, garrantzi handiena duena.

Helburuei dagokionez, Ustaritzeko Agirian garbi geratu zen. Hau da, Udako Euskal Unibertsitatearen xedea, unibertsitate euskalduna, nazionala eta herritarra lortzea dateke, gaurregun dauden guztiak arrotzak eta kasu batzutan gure herri-kulturaren aurkakoak bait dira.

Udako Euskal Unibertsitatearen barne-eraketa

U.E.U.ren lehen lau urteetan Iparraldeko IKAS taldea izan zen eraketaz arduratzen zena. Talde honetako Manex Gohiene-txek hartu zuen U.E.U.ren Idazkari lana. Hegoaldearekiko ha-

rreman eta zereginetan ELHUYAR taldea izan zen, bai ipat, arduratu zena.

Ustaritzen egin zen IV. U.E.U.n, idazkari berria aukeratu izan zen eta ordudanik, pertsona hori izan da U.E.U.ren zama handiena eraman duena, lan egiteko erresponsabilitate guztia berari bait zegokion. Egoera honetan, 1983.eko XI. U.E.U. ospatu arte egon gara.

Bestalde, 1983ko XI. U.E.U.n idazkaritza birmoldatzea erabaki zen. Aldaketak egitea aurretik eskatua izan zen baina XI. ekitaldirarte ez zen egin. Gaurregun, behin aldaketak eginez, honela dago antolatuta gure erakundea:

- Buruzagia
- Idazkari Orokorra
- Idazkari Teknikoa

Hiru pertsona hauen gainetik «Batzorde Iraunkorra» dago, hiru horiek bertako partaide natoak direlarik. Hortik aparte, beste 11 pertsona gehiago daude, U.E.U.rekin lotura handia izan dutenak azken urtetan. «Batzorde Iraunkorrea Euskal Herri osoko partaideak daude: Bizkaia, Gipuzkoa, Araba, Nafarroa eta Iparraldekoa.

Batzorde hau bi hilabetetik behin biltzen da, premiak lehenago biltzea ez badu eskatzen behintzat.

Hortik aparte, Sailburuen batzarra dago, berauek urtean zehar biltzen direlarik programak eta planak azaltzeko eta dituzten arazoak konpontzeko. Zeresanik ez, Sailburuak egunero biltzen dira Iruñean U.E.U.ren ekitaldiak burutzen diren bitartean.

Sailak

Lehenago aipatu dugunez, hasiera batean U.E.U.k hitzaldi magistralak antolatzen zituen eta bere egitura honen inguruan osatzen zen. Gaurregun berriz, sailak dira U.E.U. konformatzen dutena eta hauek dira benetako garrantzia dutenak.

Sailak ere, denak ez dute bilakaera bera izan. Batzuk adibidez zientzia zehatzetakoak, besteak baino gehiago geratu dira eta beraz, esperientzia eta lan oparoagoa eskeintzen dute. Halaz ere, beste sailetan lan asko egiten ari da eta emaitzak nabariak dira.

Aurtengo sail guztiak bost arlo nagusitan taldekatuko genituzke, berauetan 679 ikasle-irakasle banatu direlarik. Hauexek dira U.E.U.k eskaini dituen sailak:

I. Artea eta komunikazioa

- Antzerkilaritza
- Bertsolaritza
- Musika

II. Giza eta gizarte-zientziak

- Ekonomia
- Filosofia
- Historia
- Pedagogia
- Psikologia
- Soziologia
- Zuzenbidea

III. Hizkuntzalaritza

- Glotodidaktika
- Linguistika
- Literatura

V. Natur Zientziak

V. Teknika eta Zientziak

- Alfabetatze Teknikoa
- Fisika
- Informatika
- Kimika
- Matematika

Dakusagunez, zientziaren sail garrantzitsuenak U.E.U.n presentzia badute, behin eta berriz garbi geratuz euskarak ez duela inolako oztoporik edozein gaiz iharduteko. Azken esan dudana, aspaldidanik gezurtatu genuen Udako Euskal Unibertsitatean edo Unibertsitatean euskaraz klaseak ematen ditugunok, baina berriro gogoratzea ez dator batere gaizki.

Liburugintza

Udako Euskal Unibertsitateko partaide gehienak, bai ikasleen aldetik eta bai irakasleen aldetik, Euskal Herriko Unibertsitateetakoak dira. Salbuespenak gutxi lirateke eta zeresanik ez U.E.U.ren Batzorde Iraunkorrari dagokionez.

Zalantzarik gabe, U.E.U.ren helburu nagusia gure Unibertsitateak EUSKALDUNTZEA da eta hortik doa kezka han-

diena. Euskalduntze prozesu honetan irakasleak prestatu behar dira, baina hauentzako materiala ere sortu behar da, gero ikasturtean ofizialean zehar ikasleekin erabiltzeko. Hau ere U.E.U.k bere betebehartzat hartu du eta honela egiten du, urtero liburu-zerrenda oparo bat kaleratuz.

U.E.U.k argitaratzen dituen liburuek, Unibertsitate Ofizialerako (besteetan ere erabiltzen dituzte) izan dira eta ikasturtean zehar erabiltzen dira. Hori gertatu da behintzat orain arte argitaratu ditugun liburuekin. Hortik ikusi U.E.U.ren garrantzia arlo honetan ere.

Liburu hauek bi mailetakoak dira. Batzuk, soilki, textu-liburuak eta besteak ikerkuntza-liburuak. Lehenbizikoak aplikazio zuzena dute gure unibertsitatean eta urtean zehar erabiltzen dira. Bigarrenak, aldiz, gaiak sakontzeko erabiltzen dira, pizkana-pizkana zientziaren munduan euskara bultzatzen ari garelarik eta bibliografia euskaraz prestatzen.

Bestalde, aipatu beharra dago, gaurregun Unibertsitatean erabiltzen diren liburu gehienak, U.E.U.k edo U.E.U.-ELHUYARren inguruan argitaratu direla. Horrek ere U.E.U.ren dimentsio bat ematen du.

Argitarapen-politika honi 1977ean ekin zitzaion eta orduaz gero ehun bat zientzi liburu eskaini ditu U.E.U.k eta gerora ere plan honekin jarraitzekoak gara, hutsune hau inork ez bait du oraindik betetzen. Hortik kanpo, bideoak euskaratzen hastekoak gara denbora luze baino lehenago, zientzi bideoak egokiak bait dira hizkuntza sendotzeko.

Zazpi probintzietako barrutia

Gaurregun hiru unibertsitate-barruti daude Euskal Herrian. Euskarak, are gehiago, euskara batuak aurrera jotzea nahi baldin bada, unibertsitate-mailan ere batasuna lortu behar dugu. Euskara dinamizatzeke ezin hobea da, horregatik unibertsitate *baten* beharra eta horrek barruti bakarra eskatzen du, euskara erabiltzen den lurralde guztiak bere baitan jasoko dituena.

Honek ez du esan nahi unibertsitate paralelo baten atzetik joan behar dugunik. Gaurregun dauden unibertsitateen gaindiketa izan nahi du U.E.U.k epe luzean erdietsu gura duena.

Badakigu hemen esaten dena lortzea oso zaila dela, epe laburrean behintzat, halaz ere, zenbait urrats eman daitezke. Norantza honetan, legeak, LRUK hain zuzen, zenbait posibilitate irekita uzten ditu bideak urratuz joateko...

Oraingoz, U.E.U.ren helburua euskal probintzietako unibertsitateetako irakasleak inguratzea da eta hau, oraindik, egintzeke dago. Irakasle euskaldun eta jakintsu asko dago U.E.U.ren inguruan ez dabilena. Beraz, U.E.U. saiatzen da jende guzti honi tokia egiten eta burua berotzen, euskal kulturaren asmo zabal honetan parte har dezaten. Gainera, U.E.U.ko partaide izateko ez da titulorik behar, baizik bakoitzari dagokion arloan gai izatea. Era honetan, U.E.U.k garrantzi handia ematen dio Nafarroa eta Ipar Euskal Herriko irakasleei, pertsona hauek U.E.U.ren inguruan ezartzen baldin badira barruti bakarra praktikan ezartzen arituko bait gara, nahiz oraindik maila arrunt xumea izan.

Beste eginkizuna, barrutia osatzeko bide honetan, U.E.U.ren ekitaldiak dira. Hauek, orain arte, Iruñean bakarrik burutu dira eta badirudi, datorren urtean zertxobait Ipar Euskal Herrian egiten hasiko garela. Hortik kanpo, U.E.U. k Komunitate Autonomoan azaltzeko asmoa du, ekitaldi autonomoak eskainiz. Hau da, urtean zehar Unibertsitatean egiten dugun lanatik at zerbait antolatzeko asmoak ditugu. Hau izango litzateke, nolabait barruti hori burutuz joatea.

Hau da, laburki esanda, U.E.U. egiten ari dena. Bidea luzea eta gogorra da, baina zenbait urrats ematen ari gara eta hortik jotzeko asmoa dugu. Baina guzti honekin aurrera jotzeko oztopo asko ditugu, nabariena finantzapenarena izanez.

Finantzapena

Diru kontutan sartuz, aurtengo aurrekontua 14 milioitakoa

izan da eta 1985ekoa ia 18 milioitakoa. Nondik ateratzen da guzti hori?

Hasteko ikasleen matrikulak eta egoitza ordainketak daude eta hauen bidez, 1984ean, 5,5 milioi lortu genuen, gainera subentzioen bidez eskuratu genuelarik. Subentzio hauek, Eusko Jaurlaritzak, Lau Diputazio Foralak, zenbait udalek, finantz erakunde batzuk, elkarte profesional batzuk, eta zenbait enpresa pribatuak eman dizkigute.

Bestalde, gastatzeko orduan, oso zuhur jokatzeko du U.E.U.k, baina halaz ere gastu pilo bat izaten du kontutan hartzen badugu 500 bat ikaslek hamabost egunetan, jan eta lo barretogietan egiten dutela, honek suposatzen duen kostua 10 milioitakoa izanez.

Gero idazkaritzaren gastuak daude eta azkenik gastu akademikoak. Azpimarratu beharra dago irakaslearen gastuak oso urriak direla, hauen arteko askok ez bait dute kobratzen, lana dohainik eginez eta kobratzen dutenek, klase-ordua 2.000 pezeta ordaintzen zaie. Bien bitartean, irakasle hauen mailako hitzal-diak, unibertsitatean, 20-25 mila pezeta ordaintzen dira.

Beraz, hemen garbi ikusten da U.E.U. posible egiteko irakasleen borondateari esker dena, azken finean, hauen militanziarengatik mantendu bait daiteke. Lana gogorra da, baina alperrikako lana ez delakoan gaude eta horren aurrera jotzeko gogoia eta kemena ematen digu.

Baleren Bakaikoa
U.E.U.ko Buruzagia